# 8. ERANSKINAK

1. Taula: elkarrizketatuaren anonimoatasuna mantentzeko erabilitako izendapenak

| NOR | DEITURA | ELKARRIZKETA URTEA |
|---|---|---|
| LizarrakoPartaidetza saileko zinegotzia | Z1 | 2018 |
| LizarrakoPartaidetza saileko zinegotzia | Z2 | 2019 |

Bi elkarrizketak aztertu dira Jone Martínez-Palaciosek proposatutako koadroarekin. Horretarako, 2018ko partaidetzazko aurrekontuetan izandako boza emaleak eta hiru urteetako proiektuen aurkezleen profilaz baliatu naiz.

**Antolakuntza, Kudeaketa eta Erabaki Publikoa irakasgairako eginiko elkarrizketaren gidoia**

Kaixo berriz ere _, dakizunez, ni Nerea naiz eta Politika Zientzietako ikaslea naiz Euskal Herriko Unibertsitatean. Aurrekoan Lizarrako Udalaren egitura politikoaz zein administratiboaz eta 2015eko hauteskundeetatik ateratako gobernu berriaren antolaketa eta kudeaketaz mintzatzen aritu ginen. Orain, gobernu-talde berriak martxan jarritako aurrekontu parte hartzaileak aztertzeko eta hauen inguruko analisi zein ebaluaketa egiteko helburuarekin nator zuregana. Zu parte hartze sailaren burua izanik eta EH Bilduko zinegotzia izanik, uste dut, pertsona egokia zarela informazio hau emateko. Beraz, zure baimenarekin elkarrizketa grabatuko dut. Hala ere, elkarrizketa anonimoa izango da eta grabaketa, soilik lan honetarako erabiliko da. Edozein unetan elkarrizketa edota grabaketa eten nahi badituzu askatasun osoz esan.

**Beroketa:**

- Noiz eta nola hasi zinen parte hartzearekin harremana izaten?
- Nola erabaki zenuen parte hartzearen ardura hartzea? Zergatik? Zein lanketa egin zenuen?
- Nola ikusten duzu Instituzioek prozesu parte hartzaileak bultzatzea?
- Zergatik burutu dira Lizarran aurrekontu parte hartzaileak?
- Aurrekontu parte hartzaileez gain, zein ekimen gehiago burutu dira Lizarran Parte hartzetik?
- (Auzoen batzordeen inguruan) Zein zen auzoen sentsazioa eta zein da orain?

**Datuak:**

- Zenbat jendek parte hartu izan du azken hiru urteetan bozkaketetan?
- Zenbat jendek parte hartu izan du azken hiru urteetan proiektuak aurkezten?
- Hiru urteetan aurkeztutako proiektuetatik, zenbat aurkeztu ditu norbanakoren batek? Eta zenbat talderen batek?
- Taldeek aurkeztutako proiektuen kasuan, badakizue nola egiten den haien arteko deliberazio prozesua? Udalak badu bertan nolabaiteko kontrolik?
- Nola zehazten duzue zein proiektu diren bideragarriak? Zein irizpideren arabera?

**Metodologia:**

- Zein da aurrekontu parte hartzaileak egiteko egin den aurre lanketa?
- Zein da aurrekontu parte hartzaileen prozesua? (noiz egin, ireki epeak, proiektuen lanketa, aukeraketa…)? Hau da, zeintzuk izan dira faseak?
- Zein proiektu bete dituzue dagoeneko?
- 100.000 euroko aurrekontua lau proiektutan banatuta izaten da. Zein irizpideren arabera zehaztu duzue diru kopurua?
- 100.000 euroko diru kopurua herritarrek erabakitzeko ezartzea, diru kopuru handia ala txikia dela iruditzen zaizu?
- Zein irizpideren arabera zehaztu duzue herritarren erabakitzeko modua (bozketa)? Zergatik lau proiektu? Zergatik lehentasunen arabera?
- Zein irizpide erabili dira prozesu osoan zehar erabili den metodologia erabiltzeko? Zeintzuk izan dira zuen iturriak? Hau da, nondik hartu duzue metodologia honen eredua?

**Eskuragarritasuna:**

- Zeintzuk dira aurrekontu parte hartzaileetarako dituzuen giza baliabideak eta baliabide teknikoak? Hau da, nork eramaten du aurrera prozesu osoa bai udaletxean lanean dagoen jendea eta bai kanpoan dagoen jendea kontuan hartuz.
- Aski dira baliabide horiek herritar guztien parte hartzea bermatzeko? (Gizarteko sektore baztertuak).
- Nola erabiltzen dira baliabide horiek prozesu guztian zehar?
- Giza baliabideen edota baliabide teknikoen arteko talkarik egon da? Nola aurreikusten da horiek bideratzea?
- Proiektuen arteko talkarik egon da? (Interes ezberdinak direla eta…)
- Adina edo sektore baztertuak direla eta, internet bezalako plataformak ez daude guztien eskura. Kontuan hartzen dira haustura digitala bezalako oztopoak?
- Nola konpontzen dira oztopo horiek? Zeintzuk dira?

**Inklusioa:**

- Zein da bozkaketetan parte hartzen duen herritarraren profila? (Adina, generoa, klase-soziala, ideologia).
- Profilen heterogeneotasuna zenbatekoa da? Zein faktoretan nabarmenduko zenuke? (adina, generoa…)?
- Zein da proiektuak proposatzen dituzten herritarren profila? Eta proiektuak proposatzen dituzten taldeena?
- Profil hauen heterogeneotasuna zenbatekoa da? Zein faktoretan nabarmenduko zenuke?
- Zein da prozesua diseinatzen duen pertsonaren edo pertsonen profila? Edo teknikarien profila?
- Zein betekizun ditu bakoitzak? Eta zein da horien profila?

**Transparentzia:**

- Zein mekanismo erabiltzen dira (sare sozialak…) herritarrei informazioa helarazteko? Zenbat mekanismo daude?

- Mekanismo horiek prozesuaren zein momentutan aktibatzen dira?
- Nola eta noiz esaten zaio jendeari nola aurkeztu behar dituen bere proiektuak? Nola errazten da lana jendeak proiektuak aurkez ditzan? (Informazio argia, tailerrak, jardunaldiak…)
- Proiektuak aurkezten dituzten pertsonen edota taldeen eta zuen arteko harremana nolakoa izaten da? (Nola, noiz eta zenbat harremantzen dira).
- Herritar hauek proiektuen garapenaren inguruko kontrolik al dute? Hau da, behin beren proiektua irabazitako lau horien artean egotean, zein da beren parte hartzea beren proiektua aurrera eramateko?
- Proiektuak aurkezten dituzten pertsonen ebaluaziorik jasotzen duzue?
- Parte hartzeari dagokionez, oposizioko alderdiekin lanketa motaren bat egin duzue? Zein?

**Ebaluaketa:**

- Nola baloratzen duzu proiektua?
- Herritarren sektore oso mugatu batek parte hartzen du. Ahotsen bat faltan botatzen duzu? Nola uste duzu gertura litezkeela parte hartzera?
- Herritarrek nola baloratzen dute proiektua?
- Zein uste duzu direla proiektu honen indargune nagusienak? Eta ahuldadeak edo hobetzekoak?
- Proiektu zehatz honi dagokionez, zein dira zuen erronkak? Eta parte hartzeari dagokionez?
- Burututako ekimen parte hartzaileek herriko kultura politikoan eragin dutela uste duzu? Zertan? (Adibideren bat).
- Administrazioaren funtzionamendua hobetu da? Hau da, herritarren begirada txertatzeak onuraren bat ekarri du? Zein?

**LIZARRAKO ZINEGOTZIARI EGINIKO ELKARRIZKETAREN GIDOIA**

Kaixo berriz ere _____, dakizunez, ni Nerea naiz eta Politika Zientzietako ikaslea naiz Euskal Herriko Unibertsitatean. Aurrekoan Lizarrako gobernu-talde berriak martxan jarritako aurrekontu parte hartzaileen inguruan aritu ginen. Oraingo honetan, Gradu Amaierako Laneko gerturatze kualitatiboa burutzeko helburuarekin etorri naiz. Lan honen helburua Intersekzionalitatea bazterketak identifikatzeko tresna egokia dela egiaztatzea da. Horretarako, Lizarrako aurrekontu parte hartzaileetan jazo daitezkeen bazterketa-maila ezberdinak identifikatu nahi ditut honen froga enpiriko modura. Izan ere, bazterketei aurre egiteko, lehenengo identifikatu behar dira. Zu parte hartze sailaren burua izanik eta EH Bilduko zinegotzia izanik, uste dut, pertsona egokia zarela informazio hau emateko. Beraz, zure baimenarekin elkarrizketa grabatuko dut. Hala ere, elkarrizketa anonimoa izango da eta grabaketa, soilik lan honetarako erabiliko da. Edozein unetan elkarrizketa edota grabaketa eten nahi badituzu askatasun osoz esan.

**Beroketa**

1. Parte hartze instituzionalaz gain, bestelako esperientziarik izan duzu?
2. Zer da zuretzat parte hartzea?
3. Zeintzuk dira, zure ustez, parte hartze instituzionalaren onurak? Eta ahuldadeak?

**1. Parte hartzearen ideia instituzioan**
1. Nork izan du parte hartzearen ideia udalean barneratzearen lehen ideia.
2. Pertsona horrek, nondik hartu du ideia.
3. Zein da pertsona horren profila (generoa, arraza, orientazio sexuala, kapital kulturala eta klase soziala).
4. Eta nork proposatu zuen lehenengo aldiz, partaidetzazko aurrekontuak egitea. Nondik hartu ideia.
5. Zein da pertsona horren profila (generoa, arraza, orientazio sexuala, kapital kulturala eta klase soziala).

**2. Dispositiboaren diseinua**
1. Nork diseinatu (metodologia eta prozedura) ditu partaidetzazko aurrekontuak.
2. Zein da pertsona horren/horien profila (generoa, arraza, orientazio sexuala, kapital kulturala eta klase soziala).
3. Zer hartu da kontuan dispositiboa diseinatzeko (Lizarrako gizartearen ezaugarriren bat, diseinatzaileen ezaugarriren bat…).
4. Dispositiboaren diseinuan herritarren batek hartu du parte nolabait. Zergatik.
5. Hala bada, zein da herritar horien profila (generoa, arraza, orientazio sexuala, kapital kulturala eta klase soziala).

**3. Dispositiboaren prozesu osoa**
1. Nork gidatu du partaidetzazko aurrekontuen prozesua.
2. Zein da bere profila (generoa, arraza, orientazio sexuala, kapital kulturala eta klase soziala).
3. Zein herritark aurkezten ditu proiektuak. (Zein da beren profila, agente teknikoaren ikuspegitik).
4. Nork erabakitzen du baliagarriak diren proiektu horiek. Zein irizpideren arabera.
5. Zer egiten da baliagarriak ez diren proiektuekin.

**4. Emaitzen azterketa agente teknikoaren ikuspegitik**
1. Egindako hiru urteetako partaidetzazko aurrekontuen zein balorazio egiten du agente teknikoak.
2. Zein da bozkaleen profila agente teknikoaren ikuspegitik. Boza eman ahal izateko adin irizpidea.
3. Aurkeztu diren proiektuen zein iritzi du agente teknikoak.
4. Zergatik irabazten dute urtero zenbait elkartek (Amife edota San Migel auzoa).
5.Izaera zehatz bateko proiektuak arrakasta izaten dute, eta beste izaera zehatz batekoak porrota (bere ustez hala bada, zeintzuk).
6. Proiekturen bat falta bada, zein.
7. Gazteez gain, herritar tipologiaren bat faltan botatzen du.
8. Zer egin daiteke, parte hartzen ez duenak parte hartzeko.

**LIZARRAKO ZINEGOTZIARI EGINIKO ELKARRIZKETAREN TRANSKRIPZOA**

Agente teknikoaren esperientzia parte hartzearekin Parte hartzearen esanahia Parte hartze instituzionalaren onurak Parte hartze instituzionalaren gabeziak Parte hartze saliaren sorrera Parte hartzearen lehen ideia Dispositiboaren helburuak Dispositiboaren aukeraketaren zergatia Agente teknikoaren profila Dispositiboaren diseinuaren egilea Dispositiboaren diseinurako kontutan hartutakoa Parte hartzearen zabalera Proposatzailearen profila Prozesuaren gidaria Aurkezlearen profila Etorkinaren proiektua Nork jartzen ditu baldintzak Baliagarriak ez diren proiektuak Bozkalearen profila Adin-muga Umeen ekimena Proiektu gustokoenak agente teknikoarentzat Aurkezle batzuen ikuskera berekoia Elkarte irabazleak Falta diren profilak Nola erakarri falta diren profilak

**TRANSKRIPZIOA**

**N:** Kaixo berriz ere Unai, dakizunez, ni Nerea naiz eta Politika Zientzietako ikaslea naiz Euskal Herriko Unibertsitatean. Aurrekoan Lizarrako gobernu-talde berriak martxan jarritako aurrekontu parte hartzaileen inguruan aritu ginen. Oraingo honetan, Gradu Amaierako Laneko gerturatze kualitatiboa burutzeko helburuarekin etorri naiz. Lan honen helburua Intersekzionalitatea bazterketak identifikatzeko tresna egokia dela egiaztatzea da. Horretarako, Lizarrako aurrekontu parte hartzaileetan jazo daitezkeen bazterketa-maila ezberdinak identifikatu nahi ditut honen froga enpiriko modura. Izan ere, bazterketei aurre egiteko, lehenengo identifikatu behar dira. Zu parte hartze sailaren burua izanik eta EH Bilduko zinegotzia izanik, uste dut, pertsona egokia zarela informazio hau emateko. Beraz, zure baimenarekin elkarrizketa grabatuko dut. Hala ere, elkarrizketa anonimoa izango da eta grabaketa, soilik lan honetarako erabiliko da. Edozein unetan elkarrizketa edota grabaketa eten nahi badituzu askatasun osoz esan.

**Z2:** Ados (indarrez). Arazorik gabe (irribarrez).

**1. Beroketa:**

**N:** bale, hasiko gara beroketa batekin… Parte hartze instituzionalaz gain, ee bestelako esperientziarik izan duzu?

**Z2:** parte hartzean, esan nahi duzu?

**N:** bai.

**Z2:** eeeh… (pentsakor) ez dakit.

**N:** edozein modutan eh, esan nahi dut, ez ee igual zu boza ematen, baina… noizbait parte hartu nonbait… **Z2:** Erakunderen batean? **N:** Bai, edo prozesu parte hartzaileren batean. Osea, edozein motatako prozesu parte hartzaileren batean.

**Z2:** Bai, bueno, ba Bildu barruan egin ditugunak, ee hautagaiak aukeratzeko… eta kontu hoietarako, adibidez. Edo… bueno, kirool taldean ere… triatlon taldean, ba… ez dakit, asanblada egiten dugu, eta asanbladan erabakitzen dira hainbat gauza. Zentzu horretan bai. Nere inguruan nahiko leku asanblearioak daude, egia esanda (indarrez, barrez).

**N:** zer da zuretzat parte hartzea?

**Z2:** Parte hartzea zer den? Bueno, nere ustez parte hartzeak hartuko lituzke esparru ezberdinak, ez? Alde batetik, ee parte hartzeko informazioa euki behar da. Nik uste dut herritar guztiok behar dugula informazio orokorra, iritzi bat sortzeko baa edozein gairen inguruan, (konbentzimenduz) eta gero behar duguna ere, ee erabakitzeko ahalmena, ez? Hori da pixka bat parte hartzea. Informazioa izan, erabakitzeko ahalmena izan, eta gero erabakitzen den hori (indarrez) gauzatzekoo aukera, m? Parte hartzea, nik ustet, horrela laburtzen dela.

**N:** zeintzuk dira zure ustez parte hartze instituzionalaren onurak eta ahuldadeak?

**Z2:** onurak? (indarrez) Bueno, nik ustet onuraak… asko direla, ez? Edo dena dela onura (indarrez, konbentzimenduz). Azken finean… bueno, dena… edo asko, ez ? Eee nik uste jendea mobilizatzeko elementuu bat izan daitekela… elementu pedagogiko bat, ez? Jendeari, ba… erakusteko, ba hemen kontua ez dela lau urtez ee hor… ente batean mugitzen diren pertsonaia batzuei ba erabakitzeko eskubide guztia ematea (indarrez, horretan sinisten du, ez dago ados modu horiekin). Baizik eta… ba parte hartzeak jarraipena egiteko aukera ematen diela, erabakitzeko aukera ematen diela… eta aktiboki ba bere herria eraikitzeko aukera, ez? Orduan zentzu hortan , nik ustet pedagogikoki baa garrantzitsua dela, onura behintzat, zentzu hortan baduela. Jendea ikustea ba bueno, berak esandakoa ba… nonbait geratzen dela, ez? (Indarrez). Edo badaukala ibilbidea, behintzat, m? Gabeziak? (Indarrez). Ba bueno, gabeziak nik uste dut, baa gizartean orokorrean dauden gabeziak direla, ez? Desmobilizazio handi xamarra dagoela gauza askotan (penaz), eta… parte hartzea ez dela izaten, hasieran behintzat, baa… ba guk nahiko… nahiko genukeen mailakoaa edoo neurrikoa (serio). Baina bueno (lasaituz), nik uste hori azken finean… hasieran… abiapuntu bat dagoela beti edozein prozesutan, eta prozesua aurrera juan ahala, jendea erakartzea errexagoa dela, ez? Gure inguruan behintzat hori da, m?

**2. Parte hartzearen lehen ideia**

**N:** bale, orain pasatuko gara beste atal batera. Parte hartzearen ideia instuzioan, osea nola sortu zen edo. Ee ea nork izan duen parte hartzearen ideia, udalean barneratzearen lehen ideia. Nork esan zuen EH Bildun lehenengo aldiz, ba sartu behar dugu udaletxean…

**Z2:** bueno, parte hartzearen kontz… parte hartze kontzeptuaa legealdi honen aurreko legealdian ere… ee planteatu zen, m? Eta EH Bildun garai horretan zeuden zinegotziek, plateatu zuten baa… batzorde bat ee antolatzeko beharra. Kontua da (indarrez) gehiengoa etzuela… eskuinak eta soeren laguntzarekin, lortu zen batzorde bat eratzekooo… ba aukera. Kontua da hori, ee alkatetzaren esku geratzen denez, baa… bueno, sortu zutela, esango genuke modu testimonialean, baino etzuen bilera bat bera ere izan. (Desadostasunez). Beraz, lau urtetan sortu zen hor ente bat, baina ente horrek lau urtetan etzuen inongo ibilbiderik izan, m? (Egoeraz jabe da). Aurten izan zen, ba bueno, gu iritsi ginenean alkatetzara hori martxan jarri genuenok.

**N:** eta badakizu nor izan zen hori esan zuen lehenengo pertsona? Osea, esan zuena…

**Z2:** horren beharra zegoela? Jolin ba ez dakit, egia esatea nahi baduzu… (buruarekin ezetz esaten). Ez dakit (indarrez) baina pentsatzen dut… bozeramale… Koldo zen garai horretan, berak trasmitituko zuela. Asuntoa da, bueno, EH Bilduren erabaki bat izan zela, ez? Komite osoarena (indarrez).

**N:** bai, bai, komitearen barruan lehenengo pertsona, ez dakizu, ez?

**Z2:** Ez. Horii ez (barrez).

**N:** bale, eee etaa nork proposatu zuen lehenengo aldiz partaidetzazko aurrekontuak egitea?

**Z2:** bueno horiii… ez dakit ondo geratzen den esatea (azkar), baina, bai. Neree apor… ekarpen txiki bat izan zen (barrezka), baina bueno, azken finean eee… ni izanik parte hartze batzordearen ee komilla artean burua. Arautegi bat ee saiatu nintzen osatzen… bestea ee… gobernukideekin ere ee… amankomunean jarri, eta hor zegoen puntuetako bat ba aurrekontu parte hartzaileena zen. Orduan bueno, ba proposatu nuen arautegi hori gida moduan planteatua genuelako eta garatu nahi genuen lehenengo puntua hori zelako, m? Ikusten genuen erakargarritasun handia izan zezakeena, ba hori izan zitekeela (indarrez).

**N:** ados, eta nondik hartu zenuen ideia? Edoo…

**Z2:** bueno, nik uste parte hartzeak azken finean, udaletxeko kudeketari ee begira, ba azken finean esparru horiek ikutzen dituela batez ere, ez? Esan dugu lehen informazioa jaso behar dela (indarrez), infomazioa jasotzeko, ba buenoo, bide batzuk badira, eta aurrekontu parte hartzaile hauen ee planteamendua bikoitza da ez? Ee alde batetik, jakinarazi herritarrei zenbat diru ee mugitzen den aurrekonotu batzuetan, beraien udalerrian. Eta gero, horretaz gain, baa parte hartzeko ze aukera izan ditzaketen, ezta? Orduan, bi helburu hoiek zeuden, etaa… uste dut juan egin naizela pixka bat galderatik (barrez), zein zen?

**N:** ez ee bueno, eaa… (isiltasuna).

**Z2:** Zergatik aukeratu genuen hori, aurrekontu parte hartzaileena?

**N:** Ez, ez… aa nondik hartu zenuen ideiaa edoo…

**Z2:** Aa ideia, bai bueno, gure ideia behintzat… ee hori, parte hartzean horiii, esan dudana, ez? Informazioa eskuragarri izatea, eta erabakitzeko aukera izatea. Orduan noski, hor erabakitzeko aukera haundiena behintzat, hemengoo udalerr… udalean, ba hori da, ez? Aurrekontuak, aurrekontuetan, markatzen delako gutxi gora behera, urte bakoitzean, zer garatuko den herrian, ez? (Babes bila). Ba bai kultura aldetik, ee hirigintza aldetik, eta hor eskua sartzeko aukera baldin baduu… herritarrak, ba nik uste parte hartzearen maila gorenena betetzen dela, m? (Konbentzimenduz). Orduan, erabakia horregatik izan zen. Ez zen izan, ez dakit nondik atera genuela ideia, baizik etaa… ez dakit, koherentzia pixka bat mantentzeagatik.

**N:** osea, nolabait helburua zen ee herritarren etaa instituzioaren artean harreman bat sortzea, ez?

**Z2:** Lotura bat egotea, noski. (Indarrez, konbentzimenduz). Bai. Parte hartzeak ere hori ahalbidetzen duelako, ez? Azkenean, ez da instituzio bat hor… ez dakit, ee hodeietan dagoen ente bat; baizik eta ikustea joe… ba hor gaudenok azkenean baa… ba herritarrak garela ere, eta herritarrekin harremana izan behar dugula (indarrez, ados dago esan duenarekin).

**N:** Bueno, nola desktribatuko zenuke zure profila? Bueno generoa baa gizona, ez? O hala identifikatzen zara.

**Z2:** Bai, bai, oraingoz bai (irribarrez).

**N:** Arraza, ba bueno, europarra, ez? Edo zuria?

**Z2:** Bai, bueno… (ez dio kezkarik sortzen).

**N:** Orientazio sexuala… ba heterosexuala, ez?

**Z2:** Ajam (baieztatuz).

**N:** eta gero kapital kulturala, bueno ee hezkuntza mailaa, ba altua ez? Esango genuke… Unibertsitatean ikasi duzu…

**Z2:** bai, unibertsitatean lizentziatua naiz, bai (Euskal Filologia ikasi du).

**N:** etaa… klase soziala baa…. ertaina? Edo gaur egun ertain bezala ezagutzen dena?

**Z2:** ertaina esango genuke, (isiltasuna) langilea (indarrez, langile klasearekin identifikatzen du bere burua).

**3. Dispositiboaren diseinua**

**N:** bai, bale. Ee bueno dispositiboaren diseinua, hau da ya beste atal bat. Ea nork diseinatu duen partaidetzazkoo aurrekontuak. Osea, bai, nork diseinatu duen metodologiaa eta porzedura… Bueno, suposatzen dut zu izan zarela.

**Z2:** bai, batez ere, bai, bai. Bueno, nik proposatu nuen hori, arautegi bat, mm parte hartzerako, aurrekontu parte hartzaileak ere arautegian zegoen puntuetako bat da. Etaa bueno baa… adosten da arautegi hori ba aurrera ateratzeko, ba gobernukidean gauden hiru taldeen artean. Orduan proposamena nere aldetik etortzen da, eta gero, ba adostasuna denen artean ematen da, m?

**N:** bale, zer hartu da kontuan dispositiboa diseinatzeko? Osea, ee hau diseinatzerako orduan, pues ez dakit, ee Lizarrako gizartearen ezaugarriren bat hartu duzun kontuan, edo…

**Z2:** (Isiltasuna). Ez… orokorrean… bueno bai (indarrez), ee Lizarrakoo… bai, azkenean… beti esaten dudana, ez? Ez du balio beste herri batean egiten den parte hartze arautegi batek herri guztietarako. Nik uste bakoitzak bere berezitasunak dituela herri bakoitzak, aprobetxa daitezke beste herrietan egiten diren ekimenak, baino, amoldatu behar dira beti hemengo errealiltatera (indarrez, konbentzimenduz). E? Esate baterako, baa ez dakit ee… leku batzuetan baa auzo batzordeak egiten dira, eta auzo bakoitzak dauka bere batzordea… hemen, ba ikusi genuen agian hori gehiegi zela. Orduan, auzo bakarrean egin ordez, baa hiruzpalau auzo edo gune biltzen ditugu, baa distrito edoo edoo ez dakit, ez? Auzo batzorde zabalago batean, m? (Babes bila, bera ados dago horrekin). Horrek, noski, ba zee… kalte izan dezake? Baa lan daitezkelaaa gai asko, eta eztabaida daitekela gauza askori buruz… eta ba denentzat agian interesa ez duela, ez? Baino aldi berean ere, positiboa da zergatik? Ba auzo batean bizi denak, bere arazoak ikusten ditu, baino aldi berean ikus ditzake ere beste auzokide batek bestea auzo bateko kide batek izan ditzakeenak. Orduaan herri ikuspegi zabalago bat izaten laguntzen du, m? Eta hori ere, nik uste dut positiboa dela. M? Orduan bueno, ba holako kasuistikak, ez? Egon daitezke adibidez. Berezitasunak esan nahi dut herri bakoitzean (urduri, argitu nahian).

**N:** bai, eta..

**Z2:** Ez dakit galdera erantzun dizudan ongi? (urduri, barrez).

**N:** bai, bai, bai, bai. Eta aurrekontuu… parte hartzaileak zehazkii diseinatzeko? Osea, bueno, igual berdina ez? Igual herriaren tamaina, edo ez dakit besteren bat…

**Z2:** bai, bai noski. Azkenean aurrekontua zenbatekoa den, aurrekontu horren ze portzentai bideratu nahi duzun ee parte hartzeraa… Azken finean aurrekontu baten barruan ere, ematen du %100 dagoela, edo %100ren inguruan erabaki daitekela. Baino hori ere ez da erreala (egoeraz jabetuz). Azken finean, ee gure udalerrian aurrekontuaren %55 dagoeneko erabakia dago (saiatzen ari da aurrekontu parte hartzaileen partida justifikatzen), gastu finkoa da. Ba langileak ordaintzeko… argia, konsumoak… eta beste hainbat gauza, ez? Beraz, geratzen zaizu 45a, 45 horretatik ere kendu behar dira hainbat gauza eta inbertsiorako edo aukerarako geratzen zaizun diru kopurua, ba benetan ez da oso haundia, m? Orduan, aurrekontuu parte hartzaileen barruan, ee proiektu parte hartzailetarako bideratzen dena, ba bueno, gutxi gorabera portzentai bat izaten da 25.000 euro, normalki, m? Ez, 25.000 ez, 100.000, 100.000 (irribarrez, urduri, zuzendu nahian).

**N:** hori, 25.000 proiektu bakoitzeko.

**Z2:** hori da, 100.000 euro izaten diraa, ba bueno, ikusi genuen portzentai aldetik ba egokia izan zitekela, m? Horrek ez du esan nahi, gero beste gauza asko ez direnik erabakitzen ere herritarren artean (azkar, indarrez, argitu nahian). Proiektu parte hartzaileak dira, baino proiektu parte hartzail hoiek daude aurrekontu parte hartzaile barruan, ez? Eta aurrekontu parte hartzaile hoietan ba bueno, jendearen iritziak sartzen dira, auzo batzordeetan esan daitezken gauzak… eta hori guztia gero, trasmititzen dugu, edo txertatzen dugu aurrekontuetan, m?

**N:** hori da, bai, bai, bai. Osea, ez da bakarrik lehenengo lau proiektuak, baizik eta denak, ez? Hartzen direla geroo helburu bezala. Baina lehenengo lau proiektuak daukate lehentasun gehiago, ez?

**Z2:** bai, lehenengo, esan nahi dut. Aukeratzen diren proiektu hoiek… baina gero beste bideetatik etortzen diren proiektu eta etortzen diren proposamenek ere, aurrekontuetan lekua badutela. Baa auzo batzordeetan aipatzen direnak…. **N:** postontzietan. **Z2:** postontzien bidez iristen direnaak etabar etabar.

**N:** bai, bale. Ee dispositiboaren diseinuan, nolabait herritarren bat parte hartu izan du?

**Z2:** ee diseinuan? Mmm bueno, diseinuan zehazki ez. Ee bueno, gero egon dira proposamenak (indarrez, bestea salbatu nahian). Jendeak egin dituenak ba behin funtzionamenduan, lehenengo edizioan funtzionamenduan jarri zenean, ee… adibidez, bai parte hartu izan dute boto zenbaketan, irekia izaten delakoo ee alderdi guztientzat eta etorri nahi duenarentzat. Eta egia da, bueno, jendea etorri izan dela, bai. Baino, diseinuan… diseinuan bertan ez. Gero proposamenak egin, eta agian kontutan hartu dira, baino diseinuan diseinuan ez.

**N:** bale, etaa badaukazu gutxi gorabera ee zein izan daitekeen herritar horren profila? Esan nahi dut, ee baa generoa, arraza, orientazio sexuala ee adina…

**Z2:** proposamenetan parte hartu duena? Ba ez dakit, ba… 40-50 urte tartean, gizona izan daiteke, eta pentsatzen dut heterosexuala, gehiengoa behintzat.

**N:** eta zuria, ez?

**Z2:** eta zuria, bai.

**4. Dispositiboaren prozesua**

**N**: bale, ee bueno pasatuko gara beste atal batera: dispositiboaren prozesu osoa. Ee nork gidatu du partaidetzazko aurrekontuen prozesua?

**Z2:** ba gidaria ni izan naiz.

**N:** bai, ez dago teknikaririk, beraz… (eroso sentiarazi nahian).

**Z2:** ez, teknikaririk eta ez dagoenez… kasu hontan… bai. Gero egia da, hor ateratzen diren proiektuak askotan, normalki behintzat izaten direla hirigintzarekin lotuak. Orduaan bai hirigintzaa ataleko teknikari edo arkitektoarekin kasu honetan, etaa zerbitzuetako buruarekin baa hartu emanean aritzen naizela ba proiektu hoiek garatu ahal izateko, m? (babes bila). Teknikariak ba eraikuntzan eta… ba beraiek direlako, m?

**N:** bale, ee bale, zein herritark aurkezten ditu proiektuak? Hau da, zein da zure ustez baa gutxi gorabera ba herritar horren profila.

**Z2:** bueno (indarrez), ba egia esan hemen denetarik dago eeh (konbentzimenduz, zinez hala uste du). Eeee egia esan, bai emakumezkoak eta bai gizonezkoak, nik uste dut %50ean ez dakit, baina portzentaian nahiko orekatua dagoela. Adina bai izango litzateke, ba lehen aipatu dizudan bezela: 40-50… pixka bat gehiago igual, 55… tarte horretan, m? Gazte jende gutxi (indarrez), eta jende heldua ere gutxi (indarrez), egia esan… bai.

**N:** eta arraza? Zuriak, ez? Gehien-gehienak behintzat.

**Z2:** bai, zuriak. Dena den, etorkinak ere egon izan dira eh (indarrez, konbentzimenduz). Marrokiarrak, bai. Adibidez… proiektuak planteatu izan dituztenak… bai, ajam. Bueno, hor bat, azkeneko edizioan behintzat, ba bai izango zen 50 urte inguruko marrokiar bat, gizonezkoa, bai.

**N:** hori zen zezen plazan…

**Z2:** e bai (indarrez), ee jarri nahi zuen hori, ee zezen plaza barruan, halakoo atrakzio gune bat edo jolas gune bat, bai, bai.

**N:** bale, ee bale, gero nork erabakitzen duu proiektuak baliagarriak diren. Bueno badago… zenbait irizpide badaude: 25.000 eurokoo… eta gero onura publikorako izatea… orduan hori nork erabakitzen du?

**Z2:** bueno hori batzordeak antolatzen du, e edo erabakitzen du. Batzorde horretan? Parte hartze batzordean egoten gara ni kasu honetan, eta teknikariak. Orduan edozein proiektu iristen denean, begiratzen da lehenik eta behin ea, bueno… ekonomikoki baliagarr… ee egingarria den, m? Gero beste gauzetako bat begiratzen dena den, baa… begiratzen dena da baa eaa proiektu hori onura orokorrerako den, eta ez den interes partikularrerako, m? Interes partikularrerako baldin bada, ba ez delako gauzatzen. Orduan erabakia, ba hartzen dugu batzordean, politika, politikaa edoo… ordezkari politiko gisa nik, eta gero teknikariak ba esan dizut, zerbitzuetako arduraduna eta gero hirigintzako ba arkitektoa. Gero hor denon artean hartzen dugu.

**N:** etaa zer egiten da baliagarria ez den proiektu batekin?

**Z2:** normalkii, abisatu, edoo jakinarazten zaio aurkeztu duenari, baa zergatik ee ezin duen pasa hurrengo fasera, edo bozketa fasera, etaa bueno, informatzen da, eta… eta bueno, eee onartu behar du (tinko). Azken finean oinarriak oso argiak direlako, m? (Babes bila). Gertatu izan dena da, batzutan 25.000 euro hoietatik pasa egiten delaa baino buenoo ikusi da benetan, ba interesgarria dela proiektu horii, egon daitekeela ba diru gehigarri hori jartzeko beste bide bat, eta egin izan da, m? Baina bueno, printzipioz ezin bada gauzatu proiektu hori, jakinarazten zaio zuzenean aurkezleari, m?

**5. Emaitzen azterketa**

**N:** bale, azken atala izango litzateke ee emaitzen azterketa ee bueno zure ikuspegitik. Egindako hiru urteetako partaidetzazko aurrekontuen zein balorazio egiten duzu?

